



EBALUAZIO-ERRUBRIKA

PROIEKTUAK.EUS — ZELULA GO!

Zelulen behaketa



IRIZPIDEA (TALDE-LANETAN)	4-BIKAINA	3-AURRERATUA	2-EGOKIA	1-HASIERAKOA
4.1 - Hipotesia planteatzea (1. galdera)	Hipotesi zehatza idazten dute, aurreko ezagutzetan oinarrituta eta zergatik azalduz.	Hipotesi argia idazten dute, zer espero duten adieraziz.	Zerbait idazten dute, baina oso orokorra da edo ez dago lotuta laginarekin.	Ez dute hipotesirik idazten, edo behatu ondoren bete dute.
4.2 - Lagina prestatzea eta mikroskopioa erabiltzea (2. galdera)	Urrats guztiak beteta daude eta laginaren prestaketa zuzena da; autonomiaz fokatzen dute.	Urrats guztiak beteta daude eta lagina behagarria da.	Urrats batzuk falta dira edo lagina akatsen bat du (burbuilak, geruza lodia).	Kontrol-zerrenda ia hutsik dago, edo laginak ez du ezer behatzeko balio.
4.4 - Behaketaren marrazkia (3. galdera)	Marrazkia zehatza eta txukuna da, benetan ikusitakoa islatzen du, eta handipena adierazita dago.	Marrazkia argia da eta ikusitakoarekin bat dator.	Marrazkia egina dago, baina eskematikoa da edo liburuko irudia kopia dute.	Marrazkirik ez, edo ez du zerikusirik behatutakoarekin.
3.1 - Egiturak identifikatzea eta alderatzea (4. eta 5. galderak)	Atal guztiak zuzen errotulaturik daude eta konparaketan aldeak zehatz azaltzen dituzte.	Atal nagusiak zuzen identifikaturik daude eta alde bat baino gehiago aipatzen dute.	Atal batzuk identifikaturik daude, akatsek edo konparaketa oso laburrekin.	Ez dituzte atalak izendatzen, edo izendapenak okerrak dira.
1.4 - Tresnaren muga kritikoki aztertzea (3. saioa, 7. atala)	Azaltzen dute zergatik ez diren atalak ikusten eta zer beharko litzatekeen (handipen handiagoa, beste tresna bat).	Azaltzen dute mikroskopioaren handipena ez dela nahikoa.	Ohartzen dira ez dutela ezer bereizten, baina ez dute azaltzen zergatik.	Ez dute mugari buruzko galderari erantzuten.

IRIZPIDEA (BANAKAKO LANETAN)	4-BIKAINA	3-AURRERATUA	2-EGOKIA	1-HASIERAKOA
5.2 - Laborategiko erabilera-arauak betetzea (6. atala)	Arauak bere kabuz betetzen ditu eta taldekideei gogorarazten die; materiala eta espazioa zaintzen ditu.	Segurtasun-arauak betetzen ditu hiru saioetan, gogorarazi beharrik gabe.	Arauak betetzen ditu, baina gogorarazi behar zaio uneren batean.	Ez ditu arauak betetzen, edo behin eta berriz gogorarazi behar zaizkio.
6.4 - Higiene-ohitura arduratsuak (2. saioa bereziki)	Higiene-protokoloa zorrotz betetzen du eta bere jokabidea zergatik den garrantzitsua ulertzen du.	Nork bere hisopoa erabili eta baztertu du; eskuak eta materiala garbitu ditu.	Protokoloa betetzen du, baina zaindu behar izan zaio (hisopoa, eskuak).	Ez du higiene-protokoloa errespetatzen (materiala partekatzen du, ez du baztertu).
2.3 - Rola betetzea eta elkarlana	Bere rola bikain betetzen du, saioz saio txandakatzen du eta taldekideei laguntzen die haienak betetzen.	Bere rola betetzen du eta txandakatzea errespetatzen du; besteei entzuten die.	Batzuetan betetzen du rola, gogorarazi behar izan zaio edo mikroskopioa monopolizatzen du.	Ez du bere rola betetzen, edo ez du taldean parte hartzen.

Ebaluazio-irizpideak (Natura Zientziak, DBH 1-2)

Errubrikako kode bakoitza euskal curriculumeko irizpide bati dagokio:

1.4	Fenomeno naturalei buruzko problema baten soluzioa kritikoki aztertzea, beharrezkoa denean birformulatuz.
2.3	Eraikuntzako eta hezkidetzako elkarrekintzak ezartzea, jarduera zientifikoetan kolaborazio-lanaren berezko estrategiak erabiliz, aniztasuna errespetatuz eta inklusioa bultzatuz.
3.1	Kontzeptuak definitzea, eta fenomeno eta prozesu zientifikoak deskribatzea, informazioa hainbat formatutan aztertuz (ereduak, grafikoak, taulak, diagramak, formulak, eskemak, sinboloak, web-orriak...), jarrera kritikoa mantenduz eta ondorio arrazoituak eskuratuz.
4.1	Egiaztatzeko modukoak diren galderak eta hipotesiak planteatzea, metodo zientifikoak erabiliz eta fenomeno naturalak azaltzen eta horiei buruzko iragarpenak egiten saiatuz.
4.2	Fenomeno zientifikoei buruzko esperimenduak egitea eta datu kuantitatiboak eta/edo kualitatiboak hartzea, baliabide, tresna analogiko eta digital edo teknika egokiak zuzen eta gero eta autonomia handiagoz erabiliz.
4.4	Esperimentazioaren, behaketaren eta ebidentzia zientifikoaren bidez lortutako informazioa eta ondorioak aurkeztea, formatu analogiko eta/edo digital egokia erabiliz (taulak, grafikoak, txostenak, etab.).
5.2	Norberaren eta taldearen osasuna, ingurumenaren kontserbazioa jasagarria eta erabilera zientifikoko instalazioekiko errespetua babestea, zientziaren espazio espezifikoaren —hala nola zientzien laborategia— erabilera-arauak praktikan jarritz.
6.4	Ohitura osasungarriak eta arduratsuak proposatzea eta hartzea, norberaren eta besteen ekintzak aztertuz (elikadura, higiena, gorputz-jarrera, jarduera fisikoa, pertsonen arteko harremanak, atsedena, pantailekiko esposizioa, estresaren kudeaketa, sexu-praktiketan segurtasuna, substantzien kontsumoa...), eta norberaren arrazoibideetan, eskuratutako ezagutzetan eta eskura dagoen informazioan oinarrituz.